

# Literatura

## Larrabetzu liburuen uri

Durangoko Azoka hor dago, Hugoenea idazleen etxea ere hasi da martxan berriki, Eako poesia egunak badaude... Baina orain arte ez zen euskara hutsezko literatura azokarik Euskal Herrian. Larrabetzun (Bizkaia) izango da lehena. Ekainaren 5, 6 eta 7an antolatu du Larrabetzuko Literatura Eskolak.

**IÑIGO ASTIZ**

Argazkia: Monika del Valle / A.P.



Bost urte dira aurten Literatura Eskola sortu zenetik. Eta eskolakideei nahikoa aitzakia iruditu zaie hori euskarazko literaturari buruzko jardunaldiak antolatzeko. Literatura izena jarri diote asteburuari. Bi arrazoi izan dituzte horretarako. Bat: Larrabetzu inguruan literaturari hala esaten diotela, literatura. Eta bi; Larrabetzu herria uri ere badela, eta jardunaldiek iraungo duten eguntan behintzat, horixe izango dela herria, literatura, hau da, literaturaren uria.

Noski, jardunaldiak jardunaldi behar badu, ezin azoka soila izan, eta, horregatik, hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horietarako Literatura Eskolako kideek, inguruko biztanleen eta elkarrekin laguntzaz. Hitzaldiak, solasaldiak, ipuin eta poesia irakurraldiak, antzerkia...

“Jauzi bat izan da”, dio Gotzon Barandiaran Literatura Eskolako koordinatzaileak. Eskolaren bilakaeraren baitan, beste urrats bat. Larrabetzun baino ez zituzten eskaintzen hasieran eskolak, baina Euskal Herri osora barreiatu ziren gero, hiru urteren buruan, eta egun ere han hemenka ibiltzen dira, hilabeteen behin irakurzaleak batuz. Hori zen asmoa, izan ere, literatura jendartera zabaltzea. Eskolen inguruan eratzen joan den jende eta elkarte sare hori baliatuz antolatu dituzte, horregatik, literaturari eskainiriko egunok.

Hainbat idazle hurbilduko da Larrabetzura asteburu horretan liburuak aurkeztu eta haien inguruan hitz egitera. Koldo Izagirre, Garbiñe Ubeda, Asier Serrano, Uxue Alberdi, Irati Jiménez, Juanra Madariaga, Beñat Sarasola, Markos Zapiain, Xabier Soubelet, Auxtin Zamora, Mikel Peruarena, Xabier Mendiguren Elizegi, Edorta Jimenez, Josu Penades, Xabier Etxeberria, Martin Etxeberria, Alberto Barandiaran...

Patxi Gaztelumendik gidaturik “deskonferentziak” izeneko hitzaldi saio laburrak ere izango

**Gotzon Barandiaran Literatura Eskolako koordinatzailea Literaturaren aurkezpenean.**

dira. Internet eta literatura izango da haien ardatza, eta blogak eta literatura hurbiletik bizi dituzten hainbat arituko dira hizketan; Beñat Sarasola, Julen Gabiria, Juan Luis Zabala eta Gorka Bereziartua, esaterako.

### Literaturaren alde ludikoa

Galder Perezek eta Ane Zabalak Edorta Jimenezen testuetatik abiatutako *Mirande Kabareta* ikuskizuna eskainiko dute gaztetxean, bestalde, eta baita Kukubiltxoren *Hilario Mortimer*, eta Eidaberen *Ametsen museoa* ere. Hedoi Etxartek poesia erreztaldi musikatua eskainiko du, eta Mikelazulo elkar-tekoek, berriz, *Ate bantsiak* ikuskizuna. Eta musikiak ere izango dira; Joseba Irazoki eta Petti.

“Literaturarekin lotura estua duten ikuskizunak dira denak, eta literaturarekin harreman estua izan duen jendeak egindakoak”, dio Barandiaranek. “Emanaldi hauekin guztiekin, literaturaren alde ludikoa ere nabarmendu nahi izan dugu”.

Izenak argi dioenez ordea, literatura eskola da, funtsean, Larrabetzuko Literatura Eskola. Irakurzaleen bilgune. Eta hilabeteen behin egin ohi duten bilkura ere egingo dute jardunaldien baitan. Literatur sistema izango da eztabaidagaia, eta Iratxe Retolaza, Olatz Osa, eta Fito Rodrig ez bilduko dira mahaiaren inguruan, Harkaitz Zubiriren gidaritzapean.

Txinpasmendi gurasoen elkar-teak antolatuta, umeek ere izango dute literaturari heltzeko bideirik, haiek sorturiko literatur lanak erakutsiko baitira Larrabetzun, eta idazleekin solasean aritzeko aukera ere izango dute, gainera.

Bazkariak izango dira larunbata eta igandean. Eskolaren webgunean jarriko dituzte txartelak salmentan. Leku berean daude jardunaldiei buruzko bestelako xehetasunak ere: [www.literaturaeskola.com](http://www.literaturaeskola.com) atarian. ■